

## AMA BIRJIÑA IZIAR-KOAREN KONDAIRACHOA.

### LENENGO BURUA

AGERPENAREN KONDAIRA EDO HISTORIA, LEKUAREN GAÑEKO ITZ  
BATZUEN ONDOREN.

Arkitzen da Iziar-ko erria Anduz mendiaren malkarrean eta Azkoiti aldetik Lizarreta-ko mendiaren azpian; eta zan Gaztelako On Sancho 4.<sup>ren</sup> erreñalditik Montereal zeritzan erria; baña On alfonso XI.<sup>n</sup> erregeak eman zien lizenzia an bizi ziranai Debako errira bizitzera joateko; eta arrezkero Montereal-ek galdu zituan bere fuero eta derecho guziak, eta gelditu zan betiko Debaren mendean. Ala bada, Iziarko erria deitzen dioguna arkitzen da, leku eder batean, itsasoaren alderontz bista chit ederrakin, eta dago Debatik legua erdi bat baño geisiagora, eta Zumayatik legua t'erdira bezela; eta dago jendez betea beste euskal-errien erara, eta jende oriek geyenak nekazariak diralarik, baditu zenbait eche bilduak eta baserri asko banatuak eta urruti.

Iziartarren prestutasunaz eta erlijioaz itzegitea, aitatu dan agerpenaren denboran, eta orain ere bai, da denbora galtzea; batez ere obracho au eskribitzen dedalarik nekazarien birtuteak ongi ezagutzen dituzten euskaldunentzat.

Oitura on oek, duda bage mugitu zuten Birjiña chit santa agertzera nascacha gazte on bati leku bakarrean.

Iziarko erriak eche bildurik etzuan denboran eta bere lurrean baserri banatuak baizik etzuanean, zijoan, gaur Eliza arkitzen dan lekutik, nescacha gazte bat, bere bertute eta senzildeagatk, bere erritar guziak errespetatzen zutena; eta orra emen nun ikusten duan sasi eta aranzan artean Andre chit eder bat, diztiaduraz betea, besoetan aur prezioitsu batekiñ. Bereala aturditu zan nescacha; baña beregandu zanean, galdetu zion Andreari nor zan, eta zer nai zuan. Orduan Imajiña sagraduak idikirik bere ezpañ chit garbiak eran-

zun zituan itz oek. «Ni naiz Aingeruen Erregiña Maria, eta nere »borondatea da egin dagidazuela eliza bat leku onetan, zeñean atse- »gin det egotea eta beneratua izatea nere Semearekiñ». Agindu ere zion esan zegiela leyalki bere erritarrai, ikusi eta aditu zuana, bertatik ekiñ zegoien eliza alchatzeari.

Bereala egiñ zuan nescachak Andre eder ark enkargatu ziona; baña beraren toleskabe eta senzildeak sinisgarria egiten bazuen ere berak ziona etzioten bereala sinistu; eta Aldazabal jaunak dio ezen, Iziartarrak beren begiz ikusi nai izan zuela egia zan edo ez neskachak ziona, eta irichirik agerpenaren lekura, ikusi zuela egia zala nescach zorionekoak segurutzat esaten zuana; bada arkitu zuten Jaungoikoaren Amaren Imajiña chit prezioitsu bat, besoetan aur eder bat zuala, zeña, arrosa guziz usaigozoduna bezela, zegoan sasi eta aranzan artean; eta batzuek dioe ezen, aldi onetan Imajiña chit santak itzegin ziela, bera ikustera joan ziranai, agintzen ziela egin zezeela eliza bat bera adoratu eta beneratzeko; nik obeto sinisten badet ere, mesede au etzala ainbesteri egiña izango, eta au bera ateratzen da jende aen enpeño eta alegiñetik, eliza beste leku batean egiteko gero esango degun bezela.

Naiz izan zedila bada, jende aek izan zezeela zeruetako Erregiña ikustearen atsegiñ neurribagea, eta aditzeko beraren ezpañ chit garbi eta birjindarretatik esan dan enkargua; edo naiz neskach zorionekoaren itzen firmetasunak sinisterazo cegiela bere erritarrai, esaten zuanaren egia; zierto dana da ezen, erazekirik beren fedea, pozez deadarkatu zuela Birjiña chit santa beren Ama chit gozo eta anparatzalletzat, eta prestatu zirala alchatzeko agerpen milagrot-suaren oroipena, sekula guzietan iraunerazo bear zuan oroikarria.

## BIGARREN BURUA.

### AGERPENAREN DENBORA.

Ez dakigu gauza ziertorik segurutzat esateko, zer denboratan gertatu zan Ama Birjiña Iziar-koaren agerpena. Anziñakoetatik guganaño irichi diran berriak igoerazotzen dute agerpen au denbora chit urrutikoetara, eta Aldazabal jakintsuak sendotzen du iritzi au, milagroaren oroipen mututzat serbitzen duan eliza andigoyaren alchatzearen gañean ematen dizkigun berri chit arretaz bilduakin. Anziñako kondaira edo istoriaren iturritik lenena diran lenagokoetatik gerokoetara datozen berriak adierazotzen digue dudarik gabe, zer lekutan agertu zan Birjiña chit santa, eta zer enkargu eman zion neskach zorionekoari, zeña izan zan alcha zedilla beraren onran leku artan bertan eliza bat. Beragatik, probatzen

badegu elizaren anziñatasuna, probatua geratuko da Ama Birjiñaren agerpenarena ere.

Giatzat serbitzen digun eskribitzalleak esaten du gai onetan ezen, gurasoetatik umeetara beti sinistu dan eliza onen anziñatasuna, sendotua izan zala pruebakin, orain berreun urte auzi batean, zeñaren paper, Debako zuzeleku edo archiboan arkitzen diranetan irakurtzen diran itz oek.=«Iziar-ko Santa Mariako eliza »chit anziñakoa dala, eta guzien iritzian Iziar-ko Santa Mariako »eliza au zala eta izan zala lenengo ama-eleiza edo parrokia eta »alchatua izan zala, Iziar, Deba, Arroa eta Mendaroko lur eta batza- »rre edo Universidade guzia baño lenago».

Itz oetatik ateratzen da eliza alchatua izan zala Iziar, Deba, Arroa eta Mendaro-erriak baño lenago.

Orañ bada, paretzen ditugula emen 1331-ean asitako era edo denboraldiko garragar-illaren 24-ean, Errege On Sancho IV garrenak Valladolid-en emandako erabaide edo despachu errelearen itzen batzuek, probatua utziko degu esaten degun agerpena denbora ura baño lenagokoa dala. Itz oriek dioe onela: «Gipuzkoan arkitzen dan »Iziar-ko gizon prestuai On eta mesede egiteagatik, aberatsagoak eta »gordeagoak izan ditezen, eta obeto serbitu algaitzeen, ontzat »damagu eta agintzen degu Montereal izan dezala izena. Orrez gañe- »ra agintzen degu Bitoriako fuero edo legeak izan ditzala. &» Alako eran non, kontuan idukirik España-en era edo Cesar-ena artu zala 38 urtetik Jesukristo baño lenago, aterako da agerpena gertatu zala Jesukristoren era edo denboratik 1294 urte baño lenago.

Baña Iziar-ko eliza chit anziñakoa dalaren prueba duda-ezgarria da Pamplona edo Iruña-ko Eliza santan gordetzen dan paper bat, zeña egiña izan zan 1027-an Aita Moret-ek Nafarroako gertaeren 1.<sup>o</sup> liburuan probatzen duan bezela. Paper orretatik ateratzen da ezen, arrasaturik moroak Iruñ edo Pamplona-ko Eliza Santa 714-an, paratu zala Eleiz-nagusia edo Katedrala Leire-ko bakartegi edo monasterioan, eta ala segitu zuen eunka urte batzuen bitartean, azturik Obispadu edo Apezpikugoa-ko mugak, eta berari zegozkion elizak.

On Sancho erregeak erremediatu nai izan zuan gaitz au, eta batu zuan Nafarroako gauzen berri zekien gizonen konseju bat, zeñak konsegitu zuen billatzea Obispadu anziñako mugen eta arrazaren denboran ziran elizen berri ziertoa, probatzen dalarik berri oekin, Iziar-ko eliza bazala 714 urtean.

Da esatea ezen, segurutzat eman dezakegula agerpenaren denbora 714-garren urtea baño lenagokoa dala.

Esaten ere du Aldazabal jaunak ezen, janzi nairik 1690-an imaji-

ña, obeto apaintzeko, orduraño egin etzana beraren benerazioagatik, arkitu zala tunika zuri chit mee bat, zeñarekin zegoan janzia, eta zeñarekin agertuzala esaten dan, guzia izkribatua; baña letra aĩn anziñakoakin, non eziñ atera izan zan zer esan nai zuten.

Kontatzen ere da gure anziñakoagatik, oraindano Iziar-ko eliza dala legua asko inguruan egiña izan zan laugarrena, Ebangelioa otsandetu edo publikatu zanetik.

## IRUGARREN BURUA.

LENENGO ELIZA ALCHATZEAN GERTATU ZIRAN MILAGROAK, ETA  
EGIN DIRAN ELIZA ONEN BERRITZEAK.

Lenengo buru edo kapituloaren akaberan utzi ditugu Iziartarrak egindako prestaerak, ekiteko fede eta bero izekiarekin eliza egiteari; eta ikusi dezagun nola egin zuten.

Au nola egin erabakitzeko, batu ziran beren jakinde eta besoakin obra au egiteko lagundu zezakeen guziak, eta autu nai izan zuten Ama Birjiñak señalatu zuan lekua ez, baizik beste bat, ura estua eta desberdiña iruditu zitzaielako, eta ipiñi zituzten begiak Zabaleta deitzen zitzaion batean, zeña bere izenak adieratzen duan bezela, zan zabalagua. Au erabaki ta denbora asko baño len, baziran Zabaletan gayak eta besoak lanai ekiteko; baña gichi kosta bazan gayan biltzea, gichiago kosta zitzaion Aingeruai aek ganaz eramatea beren Erregiñak señalatu zuen lekura. Beriz eta berriz au bera gertatu zan; eta gizon gaiztoen batzuen obra zalako ustean, ipiñi zituzten zaitzalleak, lekuaren zelatan egoteko, eta geratu ziran guziz arrituak, ikusi zuenean beren begiak beren lanak desegitea gichi kostatzen zitzaion Aingeruai. Ezaguturik atzenean beren utsegitea, zeña, anziñakoetatik guganaño irichi danez, etzan kastingu bage gelditu; Iziartarren beso indarsuak asi ziran, arako eliza chiki aren zimenduak botatzen; onek alabaña, oraiazi bear zuan agerkerera, eun urte asko ta askuak igaro ta ere.

Denbora gichian bukatua geratu zan Imajiña preziotsuaren lenengo eliza; eta denbora guziak errespetatu due Imajiñ au, bere edertasuna galdu gabe. ¿Zeñen obra dá imajiñ' au? Gure anziñakoetatik guganañoko berriak irtenerazotzen dute ispiritu zorionekoen eskuetatik, eta au sinisgarria egiten du Imajiña onetan ikusten danak.

Gaya da chit pisua eta trinkoa, eta ez daki iñork zerezkoa dan; arpegia da chit ederra eta liraña, eta denbora berean andigoyez eta errespetoz betea; kolorea zerbait bezchoa, anziñako beste Imajiña agertuakin gertatzen dan bezela; baña ez arako, askoz denbora

guchiagoko batzuetan, ikusten dan azul beltz ura: kopeta da zabala: bezintak chit ederki arkuerratuak, eta aoa guziz chikia. Arpegian dauka señaile edo achaparkada chiki bat, dirudianez debozio eragabe batek egiña; eta dirudi beraren edertasun guzizkoa geitzen duan oreñ bat. Buruan dauka koroï erreal bat, gai berez egiña; eta dago jargoi edo tronu urreztatu batean eserita. Guziari batean begiratzen zayola, da gauza miragarria; ala nola besoetan daukan aurra, zeña dan gai berezko puska aparte bat.

Asieran egin zuten elizak chikia eta kostu guchikoa izan bear zuan; zergatik gero, noiz eziñ señaletu baiteke ere, andiagotu zuten.

Baña obra berriak ere, etzuan izan bear Mariaren debotoen fede azitzen zijoanaren gustokoa; eta 1300.<sup>an</sup> gichi gora bera bukatu zan orain ikusten dana, eta nolakoa dan esatera goazena. Obra añ andigoya da, non arriturik uzten dituan bera ikustera dijoazen persona chit asko; ekarri dezakegularik onen pruebatzat Garibay kondairatzalle ezaguna, zeñak ematen duan au obra galant-edertzat. Eliza da chit andia eta zabala, guzia arri landuzkoa, ederki kantautua, eta otoigope edo arku bat bakarrekkoa. Erretablo nagusia da apañgoya eta chit ederki egiña: beraren erdian eta partetik lenen edo garaienean, Sagrarioaren gañean dago paratua Imajiña milagrotsua. Aldare nagusiaz gañera ditu beste bost aldare, eta sakristia arte andigoiko bat. Torrea, denbora batean zan liraña; baña oñazkarrak bi bider lurreratua, orañ ikusten dana ez da len izan zanaren itzala baizik.

Esan degun bezela, Imajiña sagradua dago aldare nagusian Sagrarioaren gañean, eta dago gordea iru kortiñakin; eta ez du au iñoiz ere iñork agertzen, apaizen batek estolarekin eta argi irazekiarekin baizik. Soñekoak aldatu bear zaizkanean, apaizak jechitzen due bere jargoi eto tronutik, eta ori bera egiten da bera berriro jasotzeko.

Ez du iñork gogoan Imajiña milagrotsua bere elizatik ateratua izan danik 1766.<sup>ko</sup> urteraño, zeñean eramana izan zan lau apaizen bizkarretan Debara, bera arrasatzen zuan izurri edo pesteagatik, zeñak aldegiñ zuen denbora guchiren barruan.

Agirian egoten da egun guzian bera eliz-pesta nausietan eta Ama Birjiñaren gañerakoetan, elizako egintza eta funzioak dirauten artean.

Ipintzen ere da agerian bera beneratzera eta onratzera dijoazenak enkargatzen dituen Meza otsandiko edo soleneetan eta errezatuetan.

FRANCISCO M.<sup>a</sup> GOROSTEGUI.

(Aurrandetuko da)

## AMA BIRJIÑA IZIAR-KOAREN KONDAIRACHOA.

(AURRANDEA)

### LAUGARREN BURUA.

MARIÑELEN ETA ITSASTARREN AMA BIRJIÑA IZIAR-KOAREN KOFRADIA CHIT  
ANZIÑAKOA

Denbora chit urrutietara igoerazotzen du geyenen iritziak it-sastarren Ama Birjiña Izar-koaren Anaidi edo Kofradiaren asiera. Gaztelako Errege On Juan 2.<sup>ak</sup> eman zien Kofradia onen erregelai legearen indarra, eta ontzat eman eta bedeinkatu zituan Aita Santu Benedicto 14.<sup>ak</sup>, zeñek eman zuan induljenzi edo barkazio oso bat Kofradi onetako sarreraren egunerako konfesatu eta komulgatuta; barkazio osoa eriotzako ordurako nonnai ill ditezela kofradi onetan daudenak; barkazio osoa konfesatu eta komulgatuta, Iziarko Eliza Santa bisitatzen duenezat orazio egĩñaz Eliza Ama Santaren goratzeagatik, erejia sustraitik ateratzeagatik, ereje eta fedebageen konbersioagatik, Prinzipe Kristauen arteko pakengatik, eta alkar ondo artzeagatik, eta Erromako Aita Santuaren osasunagatik.

Induljenzi edo barkazio oek biak emanak daude betiko. Gañera ematen diezte zarpi urte eta zazpi bider berrogei eguneko barkazioak, urteberri egunean, Jaunaren igoerarenean, uztallaren lenengo igandean, zeñean egiten dan esan dan Elizan, Ama Birjiñaren Sortze chit garbiaren festa, eta urriaren 2.<sup>ko</sup> Aingeru Santuan egunean, konfesatzen eta komulgatzen diranai.

Ontzat artu bitza irakurleak nere izgayari ez dagozkan itz bi. Aldazabal jaunak dio ezen, beraren denboran ere, uztallaren lenengo igandean egiten zala Iziar-ko Elizan ponpa andiarekin, eta ara joaten ziran erri askotako jende chit askorekiñ, Ama Birjiñaren Sortze chit garbiaren festa. ¿Zer esango degu gaur? ¿Oztu dala festa ets-andiko onetara joan oi ziran erri aetako jendeen fedea? ¿Erri oek galduaz dijoazeala, beren aurrekoen oitura erlijjotsuai diela, beti esan izan dan amorioa? Eranzun beza irakurleak, eta konsidera beza bere ardura-bagekeria.

Kofradi onetan sartuak egindako errukizko edozein obragatik se-ñaldatua dago irurogei eguneko barkazioen sari edo premia. Beste ainbeste eguneko barkazioak emanak dauzka Benedicto 14.<sup>nak</sup> berak, Ama Birjiña Iziar-koaren tesoro edo gordairuko Kofradian dau- denentzat, beraren Mezaren bat entzuteagatik, edo joateagatik berak egin oi dituan elizako funzioetara, edo errukizko edozein obra egi- teko izan oi dituan batzarre edo Kongregazio agiriko edo ezkutu- koetara, edo egin oi dituan prozesioetara, edo illak enterratzera, edo Sakramentu chit Santuari, gāsoren batentzat darameenean la- gun egitea, edo au eziñ eginik, errezatzen badue gaišoagatik Aita- gure bat eta Abe Mari bat chincharria aditzean.

Era berean Benedicto 14.<sup>ak</sup> berak señaletzen du barkazio osoko aldareztat, Iziar-ko Eliza Santuko aldare nagusia, Santu guzien zortziurren guzirako eta urteko astelen guzietarako, an edozein apaizek meza esan ezker, kofradia onetako edozein defuntugatik, irabazi dediñ barkazio osoa beraren animarentzat. Luzegi litzake emen paratzea Obispo jaunak kofradi edo anaidade onetan sartuai emanik dauz keen barkazio kontaezgarriak. Gauza sinistezgarria dirudi, kofradi bat bere listan ipiñiak daudenai grazi añ ugariak ematen dieztene, Benedicto 14-garrenaren Bulda batek bedeinkatua, eta Gaztelako Errego On Juan 2.<sup>ak</sup> ontzat emana, izatea orain, noiz- bat izan zanaren itzal uts bat. Onratzen ditu gure aurrekoak, ipiñi izana kofradi bat Aita Santuak eta Erregeak arreta añ andia izan ziona; baña onra au biurtzen da desonra, aen ondorengoentzat, oek aztutuzen diranean onelako obretarako aen ardura andiaz.

Eta ¿zér obligazio ipintzen diezte, eta zér eskatzen die kofradi onen erregelak, bertan sartzen diranai? Illean beñ konfesatu eta komulgatu, Errosarioaren parte bat egun-oro errezzatu, sarreran erreál bi beste pagakizunik bage. Asieran eskatzen zituen errege- lak zenbait gauza, zeñakgatik eziñ guziak sartu zitezkean kofradi onetan; baña 1743<sup>uk</sup>, zeñean ipiñi zan kofradi berria Ama Birjiña Iziar-koaren tesoro edo gordairuko Kofradiaren izenarekiñ onen parte izan ditezke era guzietako personak, naiz izan ditezela Pro- binzi eta Erreñu arrotzetakoak.

Kofradi onen festa lenena egiten zan Ama Birjiñaren Zerurako jasoearen zortziurrenako igande eta astelenean, biltzen zirala festa onetara jende asko Bizkaitik eta Franziko portuetatik ere, eta sei leguaz Iziarren inguruko kofradiako guziak, joan bear zuen ara urrezko florin-erdi baten penaren azpian, 3<sup>garren</sup> erregelak agintzen duan bezela. Iziartarrak ipiñi oi zuen festa onetan arbola chit luze bai Elizako plazachoan lore eta girlanda askorekiñ, eta arbola one-

gatik itsas-gizonak ematen zituzten, zillarrezko eun erreal, eta batzuetan geyago ere bai, Imajiña Sagradua apaintzeko, segurutzat zeukeela zorionekoa zala arbola ura ipiña zeukan onzia, eta gañerakoak artzen zituen beraren ezpalak fede eta konfianza sinistezgarrri batekiñ. Geroako aldatu zan festa onen eguna, eta orañ erriak egiten du, Abostuaren laugarren igandetik urrengo astelenean aldatze-bage egiten dan, festa-gastu guzien kostua.

Kapitulu edo buru au bukatzeko ezin utzi ditzaket emen ipiñi bage Aldazabal jaunak kofradi onen gañean 1767.<sup>an</sup> eskribitzen zituen itz batzuek. «Barkazio aiñ ugariekiñ eta Imajiña chit milagrotusu onenganako kristan fiel guzien debozio edo amodio andiarekin sartu dira beraren kofradi berrian jende chit asko ez bakarrik Deba-aldeko erri-geyenak, baizik beste erri eta Probinzi arrotzetakoak era; eta biltzen dira Ama Birjiñaren egunetan eta urteko beste festa egunetan, elizako funzio eta sermoyetara eta esperatzen da urte guchi barru chit-asko sartuko dirala kofradi onetan, eta asko geituko dala María chit Santaren Imajiña Sagrada onenganako debozioa; bada uste degu onetarako bear diran alegiñak egingo dituela beargai au bere kontura daukeenak: mundu guzian zabaltzeko Itsasoko izar Soberandi onen mirarien berriak; ala uste degu Imajiña Sagradu onen erritaren amodio eta deboziotik.

## B O S T G A R R E N   B U R U A .

AMA   BIRJIÑA   IZIAR-KOAREN   BITARTEZ   EGIN   DIRAN   MILAGROAK

Itsasoko izarra deitzen zayo Zeruetako Erregiñari, eta batez ere onela dei tu bear zayo Iziar-ko Imajiñari; zeñak agertu nai izan zuan mendi batean, nondik ederki bere azpian daukan orren parte andi bat: Bere jargoi edo tronutik ederki zaitu ditzake бага indartsuak astintzen dituen, eta askota laguntza Jaungoikozkoak baizik arkitzen ez dituen mariñelak eta itsastarrak: eta ala egin du, gertaera askoren artetik, esatera goazen batzuetan.

1700.<sup>garren</sup> urtea zan guchi gora-bera, Pasayako portutik Amsterdam-erako irten zanean onzi bat, agintari zuala Getaria-ko seme, Geronimo Bengoechea Kapitana, Jiron Kapitanaren izenez ezagutuagoa. Lana edo illez kargatua zijoan ontzia; eta bertan zijoazenen asmoa zan, karga entregatuta, bereala joatea Terranoba-ra baleen arrantzara: baña Ingalaterra-ko kanal edo itsasartera irichi ziranean, ekaitz aserre batek galerazo zien bizitzaren esperantza guzia. Baziran bost egun bagen jostaketa egiña zebillela onzia aetan surik ere ezin iraceki zutela, eta bitartean bi onzi ondatzen



ikusteak galerazi zien bizitzaren esperanza guzia. Kristauak ziran bezela, onzian zijoazenak egiten zituzten seguru, uste zuten eriotzarako prestaerako akto edo egintzak; eta ona emen non Zeledonio Zurbano zeritzan Deba-ko mariñel bat oroitzen da, bere kofrean zedukanaz. Ama Birjiña Iziar-koaren mantuaren puska bat zan, orduan Bikario zan On Juan Iziar-gandik alaja parebage eta erre-galo prezioitsu bat bezela, irichi zuana. Au aditzean Kapitanak agindu zuan Pasayako mariñel guzien artean animotsu batek para zezala erliki ura onziaren goyenean, promes egiñaz barrika t' erdi lumera Ama Birjiña Iziar-koari erregalatzeko, libratzen bazituan eriotza seguru artatik, eta arrantza ona izaten bazan; eta edozein moduz barrika bat, promes egiten zutela mariñelak era, Ama Birjiña bisitatzeko eta berari eskerrak emateko. Paraturik erlikia onziaren goyenean, asi ziran Salbea kantatzen, eta bukatu zuen baño lenago aldegin zuan pelgroak, eta desegin zan ekaitza. Karga Amsterdam-en entregatuta, aurrera eraman zuten beren biajea Terranoba-ra, eta añ ugaria izan zan arrantza, non amabost egun bakarretan artu zituzten 700 barrika lumera, zeña zan onziak ekarri zezakeen guzia. Beren echetara biurtu ziranean, kunplitu zuten beren promesa, eramanaz agindu zuen limosna zeñak baño izan zuan 45 ezkutu. Au da gertaeraren gañean Frai Joseph Jesus María eta Arakistañek kontatzen duana, bear dan moduan idikitako bil-lagine edo informazioaren ondoren bezela, egia jakiñ zediñ bear dan eran.

1765.<sup>ko</sup> ilbeltzaren 11.<sup>an</sup> biurten izan arrantzatik Deba-ko chalupa bat, baña ekaitz izugarri batek utzierazo zien itzasoko zabalean mariñel bat José Antonio Arrue zeritzana, eta chalupa gidariaren illoba. Sartu zuan chalupa portuan, eta irten ziran beste batzuek, mariñel utzia sokorritzeko, edo illa topatzeko; baña ezin arkitu izan zuten, eta biurtu ziran aren billa joan ziranak naigaberik andienarekiñ.

Illunzetik ordu bira, aditu ziran deadarrak arrandegiaren parean, eta an arkitu zuan ondarerean zetzala Jose Antonio Arrue. Eramanik echera, non tristura poz biurtu zan, kontatu zuan gertatu zitzayona era onetan: «Chalupatik kanpora baza batek bultzatu, irichi nai izan nuan ur bazterrera, biderik laburrenetik; baña atzera bota ninduen itsaskolpeak. Etsi nuan ia nere indarraz, denbora geyagoan bagai gogor egiteko eta orduan egiñ nion orazio labur bat Iziar-ko Ama-ri, agintzen niola biotz guziarekiñ, bere Elizan bisitatuko nuala, eta bere aldarean meza bat aterako nuala, libratzen baninduan aiñ urrean ikusten nuan erietzatik.

Ekin nion nekezenetik, eta erraztu zitzaidan itsasarte edo kanaleko sarrera alako eran, non irichi al-izan nituan ibayaz beste aldetik dauden arkaitzak, non seguruan jarri nin tzan. Itsasoko peligroetatik libre ikusi nuan nere burua; baña otzak, bada narru gorrian arkitzen nintzan; eta orrez-gañera pauso bat eziñ emanak egiten zuen ikaragarria nere egoera. Ipiñi nuan berriro nere esperanza Ama Birjiña Iziar-koaren anparoan, eta sartu nintzan berriz ibaian bera igeri pasatzeko, eta alegiñ andiarekiñ alderatu al-izan nintzan ur bazterrera, non deadarretara bildu zan jendea, eta arkitu ninduten ondarrean nentzala, praso bat eziñ emanik.»

«Andijk chit egun guchira kunplitu nuan nere promesa Iziarra onütsetan nijoala eta angó jendeai kontatu nien gertatua.»

Beste milagro asko kontatuko nituzke, baña orrela ez nuke konplituko, asieran laburra izateko eman nuen itza.

Bukatzer a noa, bada, nere lana, esanaz irakurleai, zer izan dan obracho au eskribitzera mugitu nauana

Ez nuan iñoiz pensatu agirian eskribitzalle bezela agertzea: baña bañuetan arkitzen nintzan Probinzi onetako erri batean, artean egun guchi ziralarik, penarekiñ utzi nuala Aranzazu-ko Komentua, eta itsegiten nuala angó erromeriaren gañean Iziar-ko Bikario On Ignazio Zubelzu, nere adiskidearekiñ, kontatu zidan Iziar-ko Ama Birjiñaren agerpen milagrotsua, eta beraren bitartez gertatu ziran mirariak Lotsatu nintzan nere jakiñenaz, eta artu nuan asmoa, ez bakarrik billatzeko gai oni zegozkan berri guziak, baizik baita oek zabaltzeko-ere euskaldunen artean. Asi nintzan nere indarrak neurtzen, eta zalantzan egon nintzan; baña animatu ninduen persona neretzat chit errespetagarri batek, emanaz nere obrachoa esamiñatzeko itza; eta onek seguruan ipintzen nauala uste det, nigatik iñork ezer esateko bide guzitik.

Gauza duda-bagea da prochugarria dala nore lana, zergatik prochugarria da. María-ri gloria emateko dan guzia: baña prochu au askoz inportanzi andiagokoa litzake, irazeki balitezke lan onen bidez, euskaldunen biotz erlijioitsuak egiteko orrako denbora oetan ikusten diran akto edo egintza agiri, gizonen gogoan betiko geratu oi diran orietako bat. Ez det zer aitatu peregrinazio edo erromeriaren izena; zergatik irakurleak onezkero asmatu du. ¡Iziarra Erromeria! da egiaz nere iduripen ederra. Ori da Iziar-ko Bikario jaun zelotsuak agerpenaren gañean eman zizkidan berri kontuz-bilduak aditzean: nik sentitu nuan lenongo mugida; ori da dudarik-bage irakurlearen gogoa. Eskuan obracho au ordu onean artzen duen guziak, ezarririk daukee beren biotzetan ogei ta amar milla

erromerigillek Aranzazu-n eman duen ikusgai miragarria: askok ukituko zituen ondoreak, eta ez guchik naiko dute akto edo egintza aek berriztu ditezela, gure aurrekoak utzi ziguen fedea epeldu ez dediñ, eta zabaldu dediñ Amarik gozoenaronz benerazio eta debozioa.

Agertze milagrotsua izan zan Aranzazu-koa: bada, ikusi dezuen bezela, señale berak ditu ere kontatu dizuedanak, Birjiñaren laguntzarekiñ.

Maria-ganako benerazioa eta bebozioa zabaldu nairik, zuei itzegiten dizuet gaur, nere euskaldun maiteak, batez ere onzicho ausikorretan Kantauriako ichaso peligrotsuko bagetan zabiltzatenai, eta Iziar-ko Imajiña Santaren aurrean berari debozioz agur egiñbage pasatzen etzeratenai.

Denbora guchi da oraindik, gerra-ko onziak itzultzen zituela beren proak Iziar-ko Birjiña-ganonz, eta agur egiten ziotela artilleriako salbakiñ; baña oraiñ pasatzen dira arro eta iñillik. Ez da orralekorik gertatzen, zuen debozioarekin: baña ñork daki egunen batean aztuko ote zeraten zuen obligazioaz! Orralekorik gerta ez dediñ, ez da gauza oberik esnatzea-baño gogo garbi oriek, Jaungoikoaren Ama-ganonz, eta ori ondoena konsegitzen da erromeri santuakin.

Beste euskal-erriak ere ez dituzte aztu bear, berakiñ Iziar-ko Imajiña Santak egiñ zituen milagroak: berriztu bear dituzte arako beren asabak Ama Birjiña-ren jayegunetan egiñ oi zituzten eta agerpenaren kondaira edo istorian guztoz irakurtzen diran erromeri aec.

Euskal-erri guzitik parte artzen zuan egintza agiriko oetan, eta Franziak, Nafarroak, Arabak, Bizkayak eta Gipuzkoak bazituzten beren ordezkioak aitatu ditugun egunetan. ¿Zergatik oraiñ galdu dira oitura santu oriek? Zergatik oztu dan fedea, eta aztu guro anziñakoen usantza ederrak. ¿Nola konsegituko da aek lengo oñean berriz paratzea? Fede ori bizi-erazo eta usantza aek oroiterazo ditzakeen akto edo egintza agirien bidez; eta au bakarrik iristen da erromeriakiñ, zeñak diran biotzac eritzen eta irazekitzen dituan probarria.

Iziar-ko Izarra, ichasoko goitargia eta itsastarren gidaria bada, da era berean, dabilztanai salbazioko bideari segitzeko, argitu bear dien argizuzia.

Bukatzeko, esan biar dizuet, egiñ dezazuela alegiña, kofradiak izan dezan Benedicto 14.<sup>ak</sup> bezelako Aita Santuak eta Gaztelako On Juan 2.<sup>na</sup> bezelako Erregeak eman zioten inportantzia, eta

Kofradian sartu ditezen persona chit asko, ez bakarrik Deba-tarrak, baizik ichasaldeko beste erri guzietakoak. Batayatu ezazue Ama Birjiña Iziar-koaren izenarekiñ erri bakoitzean bertan arkitzen diran chalupatako bat guchienez: orazio egizue Imajiñaren aurretik pasatzen zeraten guzian, eta peligroan arkitzen zeratenean eskiñigiozkatzue zuen buruak, adituak izango zeratelako konpianzarekiñ. Esaten degun erromeria, egiten bada, izan dedilla denbora oetako lenengoa, baña ez azkenengoa. Izan zaitezte zuen asabak bezelakoak: artu itzatzue aen oitura onak, joaten zeratela Ama Birjiñaren jaiegunetan Iziar-ko Elizan egiten diran funzioetara; eta azkenik, egizue zuen limosnakiñ andigoyak izan ditezela Iziar-ko Birjiñaganako benerazioa eta debozioa; bada au guzia egĩñarekin, asko irabaziko dezue Jaungoikoaganako; zeña dan ala beretzat nola Iziar-ko Birjiñaren deboto guzientzat, Aldazabal jaunaren obraren laburtzalleak, deseatzen duan premio edo sari bakarra.

Obracho au osatzeko, eta orren frutuak eraigilleagoak eta prochu-garriagoak izan ditezen, etzayo egilleari ezer obeagorik iduritu, emen paratzea baño, Tolosa-n 1866.<sup>an</sup> argítara eman zan Bederatzi-urrena, On Pedro Jose Aldazabal eta Murgia-k 1768.<sup>an</sup> euskeraz eskribitu zuanetik erderara itzulia bezela; koroitzen duela azkenik, Iziar-ko Ama Birjiña chit garbi beraganako kantaldi autuen ta egokien batzuekiñ

FRANCISCO M.<sup>a</sup> GOROSTEGUI.

